

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2026eko zerga ordaintzea

2026ko apirilaren 20tik ekainaren 20ra arteko egun baliodunetan, biak barne, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2026ko zergari dagozkion aurtengo ordainagiriak prest egongo dira borondatezko epean ordaintzeko.

Zerga hori ordaindu behar dutenek bulego orduetan (9:00etatik 14:00ak artean) egin ahal izango dute ordainketa, udaleko diruzaintzan, aipatutako epe horretan. Era berean, udalak Kutxabanken, Laboral Kutxan, La Caixan eta Caja Ruralen dituen kontuetako batean ere egin daiteke ordainketa. Zergadunei gogorarazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu dezaketela. Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta dutenek, helbideratze kontu bera badute, ez dute inolako izapiderik egin behar, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Aipatutako epea amaitzean, automatikoki abiatuko da betearazte aldia, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutakoaren arabera, eta dagozkion errekaratu eta berandutze interesak kobratuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2026ko apirilaren 15a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ